


**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
49n. ZENBAKIA  
ABENDUA  
- 1981 -**



**ONDARROA:  
KRESALA TA GAROA;  
LEGORRA TA ITXASOA**

# Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Couñe eu moztos*

*Zerre nortea gurean*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

# AZTERTZEN

Berrogei ta bederatzigarren zenbakian gagoz ZER'tarrok: Idazleak, irakurleak, laguntzailleak...

Ori dala-ta gabonaldirako batzarra gertatu dogu. Izan be, noizean bein geldi-aldi bat egin eta geure buruak aztertzea ondo dago.

\* \*\* \*\*

Asteko, pizka bat atzerantza begiratuta: Zein zan gure elburua ZER lenengoz argitaratu zanean? Ez besterik «Bizkai'tarrai Bizkaieraz» idaztea baiño. Orain iru edo lau urte, argi ikusten genduan baikaierea il ezkerarik erdia ilten dala, gure jakintzarentzat ori galtze ikaragarria izango litzakela, bizkaieraz berba egiten dan lekuan beste euskerarik iñoz egingo dalako itxaropenik ez daukagula.

Eta ordurik ona aldakuntza batzuk izan dira, baiña gaur gure eritxiko diranak orduan baiño gitxiago ez dira.

Bizkaieria indartzeko irakurleak ugaritzea nai genduan eta ez dakit ori lortu dan. Idazle barriak sortzea edo asten diarduanai laguntzea izan zan eta, ori bai, aurreko zenbakian ikusi daiteken lez, 34 idazle dira gure aldizkari onetan idaz-lan bakarri idatzi dabenak, sarritan lenengoa; eta ainbat idazle barriak be.

Lanak artzean zabalak izan gara, punterengo bikaintasunik ez dogu billatu idazleengan, bai sarritan lagundu egokiago idatzi dagien.

24 idazle izan diran 10 idaz-lanetik gora idatzi dabezenak. Onei eskerrak argitaratu al izan da aldizkaria eta ola-koen laguntza bear-bearrekoa dogu aurrerantzean be.

\* \*\* \*\*

Ona emen ZER'en alde zer entzun dogun: Ariña dala, irakurlea egarriaz geratzen dala, euskera ikasten dabilzanai eta euskaldun barriai asko laguntzen dautsela, apain agertzen dala, idaz-lanak errez irakurteko lez agertzen dirala.

Eta beste oneik aurka entzun doguzanak: Sakontasunik ez daukala, irarkolako uts asko daukazala, sarritan gaiak ez dirala garrantzizkoak.

Eta akats oneik, akatsak ba'dira, ZER'ek bere-bereak ditu: Ez dogu gura aldizkari sakona izan daiten, gai garrantzizkoak erabilteko lana beste batzui izten dautsegu, naizta emen be lan batzuk benetan sakonak agertzen dirala ezin ukatu. Eta irarkolako utsai begira, bai, ba-dago or zurtasun geiagoz jokatu-bearra eta errua ez da irarkolakoa, idazkoalakoa baiño: Zuzenketak egitean arreta geiago ipiñi bearko dogu.

\* \*\* \*\*

Etorkizunari bagira, gabonetako batzarrean erabagiko da aldakuntzarik bear dan ala lengo bidetik jarraitu leiten. Gu jarraitzeko gertu gagoz, idazleen laguntzak utsik emoten ez dauan artean. Beste batzuk egitarau egokiago bat eta ziurtasuna eskintzen ba'dabez euren eskuan izteko be ez genduke eragozpenik izango. Artu zein itzi, ardura gitxi.

\*\* \*\* \*\*

Zabalkundeak be ez dauka ZER'en indar aundirik. Ez geure buruak ordaintzeko. Orretara ezin geintekoz eldu, gu baiño aundiagoak ba estu ta larri ibiltan dira-ta, baiña bai egin bear dogun lana ugariagoa ta cginkorrangoa izan daiten.

Adiskideok! Etorri abenduaren 26'an Zornotza'ko Larra'n egingo dogun batzarrera ekarri zuen eritxiak eta jokatideak. An egingo dogu berba astiro ta gogotsu gai guzti onei buruz. Eta eskerrik asko guztioi emoten dozuen laguntzagaitik eta artzen - dozuen arduregaitik.

# ATXURI'KO MILLAGRUA

(Bizkaieraz) (Umeentzat Antzerkitxoa)  
Kirikiño'ren «Abarrak» liburutik artua eta eratua

**Antzezlariak: On Jose eta txinel bi, Errenak 4 edo 5, edo geiago...**

*Edeslariak* (Irakurrita naiz buruz).

Emen orain antzeztuko doguna jazo zanetik, urte asko igaro dira.

Orduan Bilbo'k ogei milla arima baiño askoz geiago ez ebazan...

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi batean, ez dakit nongo errian atso bat il zala guztiz aberatsa, eta milla ogerleko batzuk itxi ebazala Bilbo'ko erren edo kojuei bananduteko.

Diru ori banatuko jakela Atxuri'n ango etxe bateko atarian.

Bilbo'ko txiro eta eskekoen artean ikara andia eragin eban iragarki onek, eta egun batzuetan ez zan nengo etorteko... beste izketarik auxe baiño Bilbo guztian...

Eldu zan zorioneko eguna...

Atxuri'ko etxe aretako atarian mai bat agiri zan...

(Au esan bitartean zapia zabaldu eta mai bat agertuko da, baita zorro bi... eta beste gauzak... Mai gaiñean tintontzi eta papel batzuk... eta zorro batzuk zerez edo arez beteak).

Gero sartu zan gizon bat, piperra baiño serioago... (On Jose sartuko da). Atarian batera ta bestera ibilli ebillen, eperdi gaiñean eskuak alkartuta...

(Txinel biak be sartuko dira).

Goizean goizetik asi ziran anka-motzak agertzen kalean. Nok uste onenbeste erren ta kojo egoanik Bilbo'n?

(Errenak sartzen asiko dira).

*Lenengo errenak.*--Eeeuuuppp!!! (makulluakaz sartuko da).

*On Jose'k.*—Zer dogu? Anketatik txarto ala?

*Lenengo errenak.*—Txarto bakarnik ez. Ezin eze-lan be ibilli!!! Len gaztetan nik dantzan ariñ eta bizkor egiten neban Begoña'ko erromerian... baiña orain... burdi batek ebagi eustazan anka biak, eta begira zelan nabillen...

*On Jose'k.*—Non bizi zara ba?

*I" errenak.*—Ni? San Nikolas ostean.

*On Jose'k.*—A rin egin dozu andik oneraño zu lenengo etorteko...

*I" errenak.*—A rin egin bear zorro orreitako diru-txotik artuko ba dogu.

*On Jose'k.*—Ondo dago, danontzako izango da. jesarri zaitetz.

*I" txinelak.*—Ementxe jesarri zaitetz, zure lagunak etorri arte. (Txinelak bankuan ipiñiko dau).

*Zen. errenak.*—(Makil aundi bat eskuetan eta anka bata arrastaka sartuko da). Ai! Ai! Ai!!!, neure anka kankallu au!!! Au <sup>neure</sup> miña; ezin egona!!!

*Zen. txinelak.*—*Ai* baiño lenago egun on esaten da.

*Zen. errenak.*—*Bai, bai, bai, ...egun... on...*

*On Jose'k.*—*Bai, gaurko eguna zuontzat ona baiño obea izango da izan be...*

*Zen. errenak.*—*Ori* guzti ori urrez beterik dago?... Ta guretzat dana? Ez da izango egia!!! Au poza, au zoriona. Au suerte ederra!!! (Saltoka ta dantzaka asiko).

*On Jose'k.*—Laster osatu zara.

*2n. errenak.*—(*Ostera* be miñetan lez). *Ai!, ai!, ai!,* ene, nire anka motza!!!

*J" txinelak.*—*Jesarri* zaitez lagun onen ondoan.

\*

*3n. eta 4n. errenak.*—(*Bi* batera eta bat eginda sartuko dira, alkar lotuta lez. Bakotxak anka bat bakarrik agertuko dau. Biak abesten sartuko dira... lara, lara...).

*3n. errenak 4n. ari.*—*I, Peru,* au dok gure suertea. Laster aberatsak gozak. Ikusten dozak or, mai gaiñean dagozan zorroak?... Ba... geureak laster izango dozak... bai, geure geureak...

*4en. errenak.*—*Emendik* aurrera lanik tautik be ez. Txakurrak egin dagiela... Bazkal-ostean señori-toen antzera kafia, kopa eta puro ederra!!! Aupa Bilbo'ko eta rnundu zabal guztiko erren, kojo, anka-motz eta anka-bako guztiak!!!

*3n. errenak.*—*Emendik* aurrera txistera dotorea buruan... lebita bustan bikoia soifiean... eta nire izena: Don Gerbasio.

*4n. errenak.*—*Eta* nirea: Don Kaspar Koipe-bustan.

*On Jose'k.*—*Zer* dala-ta, orrenbesteko poza?

*3n. errenak.*—*Ikusten* gaitu, Jauna? Ni anka bakar eta au anka-motxo. Gizon bi ta bi anka. Bakotxak bat, eta bion artean bi... orko diru guztiak guri... zorionak zuri ta niri... diruak egin nau bertsolari...

*2n. txinelak.*—*Esarri* zaiteze ementxe besteak etorri arte.

\* \* \*

(Gero nai bada beste erren batzuk sartu leitekez, baiña danak barregarri ibilliaz).

*5n. errenak.*—*Neu* naz lenengo.

*6n. errenak.*—*Nou* orixe etorri naz zu baiño lenago.

*5n. errenak.*—*Ze* demoñino!!! Niri ez daustazu lekurik kenduko...

*6n. errenak.*—*I* nor az, ba, ni baiño geiago, pipermori!!!

*5n. errenak.*—*Isillik* ez ba'ago, tripak agotik aterako auadaz.

*6n. errenak.*—*Ik* niri!!! Alper-zar; arlote, asta-buru orrek. (Burrukan asiko dira; eta txinelak banatuko).

*Txinelak.*—*Judas,* inpernuko deabru guztiekaz!!!

*2n. txinelak.*—*Geldi* emen! Sekulan be ez neban siñistuko Bilbo'n onenbeste orren arlote dagonik.

*On Jose'k.*—*Isilik!!!, isilik!!!* Orain txinelak irakurriko dau, diru oneik zuentzat itxi dauzan atsoaren testamentua.

(Txinelak tanborra jota, bandoa emoten dan antzera, irakurriko dau):

*Txine/ak.*—*Jaun-andreok* eta Bilbo'ko anka-bakar, anka-motz, anka bako eta erren guztiok: Nik Floripondia Txoribarregarri'k, eriotzako orduan, Iarogei milla urrezko, Bilbo ta inguruetako erren, anka-bakar eta tonto-lapiko guztientzat, izten dodaz. Nire eriotza-ostean diru oneik Atxuri'ko zelaian banatzea gura neunke, an batzen diran erren, kojo, anka-bakar eta astakillo guztien artean. Ala izan dedilla.

(Au entzunda erren guztiak makulluak bota ta saltoka, goraka eta txaloka asiko dira).

*Batek.*—*Gora,* Andre Floripondia Txoribelarri!!!

*Guztiak.*—*Gora!!!*

*Beste batek.*—*Gora* On Jose, diru-banatzaillea!!!

*Guztiak.*—*Gora!!!*

*Beste batek.*—*Gora* Bilbo ta inguetako erren guztiok!

*Guztiak.*—*Gora!!!*

*On Jose'k.*—*Isilik!!!* Oraintxe asiko gara emen clagona emoten. Ni txinelakaz barrura sartuko naz, eta zuok bien bitartean zorrotara begira-begira egon zaiteze gu ostera be agertu arte.

(On Jose eta txinel biak sartuko dira. Besteak begira-begira egongo dira eta eskuak pozez igurtzitzen diru pilloak noz artuko).

(Geroagotxo On Jose sartu dan atetik bertatik zezen batek urtengo dau adarka erren guztiak anka gora botaten. Ango nastea eta arifieketea zezenagandik iges-egiteko!!!. Zezen ori mutil bat zezen-adarra-kin edo izan leiteke...)

\* \* \*

*Edeslaria.*—*Egundoko* ariñen kalea garbitu zan. Zezena agertu orduko kojo-erren guztiak osasunera etorri ziran. Atxuri'ko millagrua!!!

# ERRIAK

## IBILLIN ERRITXOA

### BIZTANLEAK

Euskal erritxu bat dirudi izenez baiña Palestina'n aurkitzen da.

Kristiñauak eta Maoma'tarrak nasteen bizi dira bertan: Maoma'tarrak bi milla, gerkar ortodoksoak iru milla, Ipar-Legeko Melkita Katolikuak bosteun.

### GIZON OSPETSU BAT

Galilea'n zear ondo ezaguna da gizon bat. Bere izena, Aita Elias Chacour (abizen motza euskaldunen belarrietarako).

Bere bizitzaren urteen erdian, abade soñeko luzez jantzia, bizar baltz marduraz, begiak urdin-zorroztak...

Aita Chacour eritxietan ez dator batera Palestina'ko lagunarterik geienakaz.

Bera, batez be, bake-zalea da...

### «MENDIKO BERBALDIA»

Ibillin erritik urrin barik, goi-aldean, tontor bat ikusten da. Orain ainbat gizaldi antxe egin zan «Mendiko Berbaldia». Aita Chacour'ek jazoera orretan ipiñi gura dau ango biztanleen ardura ta oarkuntza, Maisu onaren irakatsiak gogoratu ta jarraitu dagiezan.

\* =- =-

### ELDER KAMARAGAZ

Urte batzuk dirala aita Elias Chacour Dom Elder Kamara Barsil'eko Goigotzaiñagaz batu zan. Lagunak ziran biak. Pax Christi ta Lagun Alkartuak itzaldia entzun eben Ipar Ireland Aberrian. Laguntzea jarraitzeko Indarkeri-eza goraberak aztertu ziran aita Elias bazkide dan batzordeak zuzenduta.

### ERITXIEN BATASUNA

Aita Elias Chacour abade katolikua da eta bere zeregiña arduratsu beteten dau.

Arduratsu ta artega dabil Toki Santuetan dan kristiñauen arteko ezbardintasunari begira.

Baiña bere ardurarik aundienea norkiak, personak dira. Ango kristiñauak noizean bein konkurtuta dagozanean, Eleiz-Nagusiak be bai, bere parrokiako lan-arazoan gaiñera, ardura barriak leporatzen ditu: Alkartzeko tokiak, idaztegiak, ume-lo-rategiak, kirol-landak.

Orretarako zurtasuna, begirunea ta gizabide aundiz ornidituta egotea bear dauala errez susmatzen da.

Aita Elias'ek gertatu dituan tokiak eta egin dituan gauzak Maoma'tarrak naiz Druzek naiz katolikuak naiz ortodoksoak erabilliko dabez, bat eginda.

Oraintxe dabil Israel'go lenengo bake-biltokirako dirua bazten.

### MAITASUNAREN SUA

Aita Elias Chacour'en abotsa une batzutan zaratatsua da. Berak gura dauan indarkeri-eza Ebanjelioan, Lukas'ek dakazan Jesus'en esakunetan oiñarritzen da: «Sua ekartera lurrera etorri naz eta zer nik gurago iziotu daiten baiño?».

Aita Chacour gar-indarrez erreten dauan sua, maitetasuna da.



### ALKAR - IZKETAN

Ona emen James Forest idazleagaz izan eban alkar-izketearen laburpena.

Noz izan zan Israel'go jaurlaritzagaz izan zenduan lenengo artu-emona?

Nik sei urte nebazala, uste dot. Nire aitak esan eustan —gu sei neba-arreba-giñan— Germany eritxoan laterri baten judatarak il egiten ebezela, txerren anker baten aginduz. Baiña gu ume koskorak giñak eta urriñeko barriak gitxi ulertzen genduzan munduaren muga-barruan Germany'rik egoanik be ez genkian.

Aitak esaten euskun andik iges gure artera, Galilea'ra judatarak etozala. Batzuk, gaiñera gure artean geratu gura ebela.

Guk, kristiñauak izanik, ondo artu genduzan, lagundu egin geuntsen eta janariak eta edariak emon be bai. Aitak gudariak aurpegi ona ipinteko agintzen euskun.

Eta umeak pozik egin genduan ori.

Orduan ikusi neban lenengoz gure aita ardi bat ilten, jatordu bat egiteko.

Erritarrak olan gura eben eta gudariak etxeetan geratu ziran.

Egun batzuk geroago giltzak agintari batek batu ebazan eta ziurtasunagaitik egun batzutarako urten bear gintzazala esan euskun. Bera geratuko zan erri-zaindari.

Baiña egunak eta asteak eta illeak eta urteak joan dira eta orain dira ogei ta amar urte ori jazo zala.

Eta zuen erritik urtenda, zelan bizi ziñeen?

Txarto, jaikiña, baiña alegiñak egiten alik ondoen biziteko. Egun batzuk orio-ondoen azprietan... Gabak otzak izaten ziran... Laster aurkitu euskun aitak atx-zulo bat... Gero erri ustu batera joan giñan eta emen etxe ustu bateko gela uts estu batera sartu giñan eta antxe giñan famili guztia.

Olan ordaindu euskuen guk ostatuz artu genduzanak.

(Jarraitzeko)  
LETONA'k

# AZERI BATEN AZERIKERIA

### ANBOTOKO ATXETAN

Ia bi milla auntek igarotzen dabe udaldia, Anbotoko atxetan.

Atx arteko sasi, sastraka, kimu ta bedar gizenaz larratzen dira, tontor areetan.

Eta neguan, mendi guztiak edurrez zuri-zuri geratzen diranean, goiko atx orreek itzi, ta Durango aldeko zelaietara datoz, negu gorria berton emoteko.

Or, bada, berrogei auntz etozen, Zabalandi'ko landetan zear, neguko larreen billa.

Eta Asuntzeko lepoan, otso bat agertu, eta esan eutsen:

—Betekada ederra egin bear gaur zuen odolaz.

—Benetan, otsoko?

—Bai, ...zuetariko bat bere ez da emendik bizirik urtengo.

—Mesedez, otsoko, ...erruki zaviguz!

—Tire, ba...! Bizirik itziko zaituet, ...baiña aukera bat eskatzen dautsuet.

—Nongo aukera...?

—Negu onetan sortuko dozuezan aumak neuretzat izango dirala, itz emon bear dautzazue.

—Tire, ba...! Bego, orrela!

### AZERIA

Negua igaro, eta or dira berrogei aurre, zein baiño zein ederrago aziak; estu ta larri, baiña!

Anbotoko atxetara igotzeko eguna urrago, ta auntzak ainbat estu ta larriago, bai.

Onetan, azeri bat agertu, eta olan esaten deutse:

—Zer zabize negar ta negar, udabarriko egun eder onetan?

—Ai, ...Azeri, Azerito...! Asuntzeko otso malmutz orrek il egin nai gaitu gu guztiok.

—Ez estutu, kuittaduok, ...neuk lagundu ta zainduko zaituet.

### KAIKUAK

Eta ba-doa azeri ori basorik baso, txabolaz txabola, baserriz baserri... Eta or batzen ditu ogei ta emeretzi kaiku txiki zar. Artzaiñak ardien esnea batzeko darabilen, zurezko kaiku orreek, baiña, azpi ausiak eukezan.

Eta mendira abiatzeko eguna argitu ebanean, olako bana jartzen dautsoe azeriak auntz bako txari, adarretatik eta belarrietatik dindilizka, begi bien arteraiño.

Auntz bat olakorik barik itzi, eta danen aurretik jartzen dau be-  
rau, eta aume guztiak aren atzetik.

### OTSOAREN ONDAMENDIA

Ba-doa auntzak, ba doaz goruntz, ...eta Asuntzeko lepoan, arako otso a itxaroten. Eta alango basa-jira bitxi a ikusirit, ba dirautso aren buru doan, azeriari:

...Azerito, ...zer dok auntz orreen buru gaiñeko ori?

—Otso-buru bana jauke buru gaiñetan...

—Eta zergatik ez jaroak aurreko orrek?

Alluitz mendi gaiñetik lasterka datorren Basajaunak esan ei jautsak ire burutzar ori jarriko dautsola berealaxe.

—Bai...?

—Bai, ...bai!

Arri ta larri geratu zan otso ori. Eta Ganbarru-beera ariñeletari emon eutsen.

Eta bere abiada itsuan, bilin-balaunka, beeko trokaraño jausi, ...Atxarteko ormetan jo, ...eta lepo-azurra ausirik, il-otz geratu zan bertan.

ESTONBA'tar Manuel

## Martin Ugalde'ren liburua

Martin Ugalde'ren idaz-lan osoa, azken-urteetan egin dan euskal jakintunen oldozpenaren laburpen bat da.

Bere azken-idazti au Euskalerriko gizarte-tinkaldian, abertzaletasunaren asieratik ona, zergaitik, zelan, noiz eta non'eri buruzko iritxiak azaltzea gogotan artu izan dabenen laburpen lez artu bear da.

Bere lana gaur egunera arte egin diran eritxien bide eratsu bat da. Martin Ugalde'ri, bere ekiñaldi gogotsuari, liburuaren aurkibide zezat, argi ta ondo banadutakoa zor dautso-gu.

«Euskal arazoa ta bere errikeraren ta jakintzaren sustrai sakonak» ez dauke jarraipenik idaztia argitara atara eban sasoiaren (1980); 1977'ko bagillaren 15'etik agertu ziran jakintzuen lanak eta oneik jente arruntaren parte artzean ezarri eben aldakuntzaz. Ez dogu eritxi barriak goi-goiko ikuspegi batez aizetu oi dabean atzalburu labor bat be.

Olan ba, liburu onek eta Martin Ugalde'k egin dauan saio-bidezko lan osoak jarraipen baten eskea dauka.

Benetan lan laburtua baiña giarratsua dogu bera.

ARREGI'tar Josu'k

# CUBA BARRUTIK (X)

### CUBA'KO AUTOBUSAK

Ni Cuba'ra izan nintzan urtean autobusen arazoa konpontzen ebiltzan.

Baiña, alan eta guztiz be, Cuba'ko autobusak zortzekoak dira; txarragoak ezin dira izan.

Baiña txarrak bakarrik ez dira; onez gaiñera oso gitxi dagoz. La Habana lurraldeak 2.000.000 biztanle inguru izango ditu, eta ainbeste izanik sarritan ordu bat eta geiago itxaron bear izaten jako autobus bateri. Eta jakiña, ordu bat itxarotea ez litzake ain nekegarri izango bertan izaten diran egun armiñekaitik ez balitz. Gogoratu daigun Tropikoan dagola.

Bestalde, leengoa gitxi bada, orduetan be ez dago ziurtasunik, iñoren kontrol barik ibiltzen dira eta; edo ohea ez dana: ainbeste denporatan itxaroten egon ostean, geratu barik aide egiten daue euli bat geiago sartzeko be ez da lekuri izaten eta.

Eundaka autobus asko dagoz geldi, kaleratu eziñik. Batzuk motorra konpondu bearreko daukelako, beste batzuk gupil barik aurkitzen diralako, eta abar eta abar.

Zergaitik izan daiteke guzti au? Geien bat, ardurabakokeri itzela dagolako; eta bestalde Iparamerikatarrak gupil-azalik ez saltzeko erabagia artu ebelako. Ziur asko, autobus oneik dauken itxurara begiratu ezkerro, erosi eta bideratu ziranetik ez ebazan iñork garbitu edo konpondu be egingo.

Ibilli eziñik geratu ziranean bide ertzean itzi eta or konpon.

Zuriz jantzita sartu eta baltzez urtetzen eban batek, ikatzezko bultzi bateko langille baten antzera.

Azkenaldi onetan Cuba'ra sartzan diran autobusak ez dira aintziñako Ley Land izenekoan antzekoak. Azkenengo oneik España'ko Pegasso'k saldu-takoak dira. Ley Land batzuk konpontzen be aalegintzen ziran, baiña ez dakit zertarako. Nine ustez, konpondu, garbitu eta oroigarritzat gorde egiteko. Sarritan bi edo iru autobus zaar artu eta euren zatiez barri bat osotzen eben. Ori, osotu, baiña geienbaten ibiltzeko eran ez, edo gitxi ibiltzeko bakarrik.

Bestalde, autobus onein gidariak be ez ziran ezertaz arduratzen. Olan zein alan erabili, bardin eutsen. Jakiña, dagoan dana Estaduarena dala jakiñik, ez dira ezertaz arduratzen. Zertan arduratu onela egin zein bestela egin sari bardiña jasoko baeben?

### TAXIS'AK

Taxisen geralekuak «Piquera» izenaz ezagutzen dira. Pikera'ra joan eta bat aurkitzea benetako arazoa izaten da. Klean utsik datorren bat ikusi eta eskuaz geratzeko zemaia egin ezkerro, ez jatzuz ia iñoiz geratzen. Eta geratzen diranak, nora joan nai dozun itaundu eta jakin ostean, ezin dabela erantzuten dautzue, iñor artu baiño leen pikera'ko euren arduradunengana joan bear dirala eta.

Emendik sortzen da diru-koipekeria. Nunbaitera joateko ukatzen diranean «nigaz neugaz ez dozu arazorik izango» esatea naiko izaten da joateko prestatzeko. Zergaitik edo zer esan nai dau esaldi orrek? Batek ordaindu bear dauanaz gaiñera eskupekoren bat emongo dautsozula. Adibidez, 60 pesetako supizteko bat, edo 150 peseta inguruko boligrafo bat edo zigarro batzuk emotea, emen 500 peseta inguruko eskupekoa emotea lez da.

Beste diru-koiperi mota bat be ba dago, adibidez, onelako esaldi bat: «Zu, zortzigaitik be ez nauzu eroango?». Onen esannaia auxe: Taxisa lau peso kostatu ezkerro, beste laurak beretzako zirala.

### ZELAN BEREKIL BAT LORTU?

Cuba'n berekil baten jaube egitea oso gatxa da. Geienetan, Unibersidadeko tituloren bat edo izan bear dozu; onela, osagillea, ekonomista, injenieroa edo beste antzerako zerbait izan bear dozu. Edo bestela «internacionalista» izan bear dozu; au da: Fidel Castrok Angola'ra, Vietnam era, Nikaragua'ra edo beste nunbaitera joan bear dala agintzean, sendia itzi eta joan ezkerro. Beraz, tituloez gaiñera, Estaduaaren aldeko izan bear dozu.

PIRU LEGARRETA



## EMAKUME

## ZAARREN OITURAK

Nire erriko emakume zaarrak otoitz asko maite dabe.

Astelen guztietan, ildegira joaten dira. Illerri-bidean asten dira errosarioa errezatzen eta illerriko kapillan amaitu. Gero, illobi guztiei ikustaldi bat egiten deute, eta illobi aurrean izketan asten dira. Olantxe igaroten dabe astelen arratsaldea.

Egunoro, goizeko sei terdietarako eleizan dagoz. Eta arratsaldean be, eleizako atean itxaroten egoten dira atea iriki arte.

Atso pillo bat da: amar edo amabost atso. Ez-konduak, alargunak, neskazaarrak... Ezizena, «aingeru korua» dauke. Zeruko deun guztiei ez deute bakean izten.

Eleizeak, alderdi bietatik aldareak daukaz, ezker eta eskumatara.

Egun baten, gauza polita jazo zan: olako aldare baten, praille bat Mezea emoten egoan. Jendetza abadearen inguruan; atso pillo ori ere an zan, otoitz eta otoitz...

Alako baten, konzagratzeko momentua eldu zan, eta abadea biurturik, atso pilloari esan eutsan erderaz: «Llega el momento de la Consagracion y tengan la bondad de rezar mas bajo».

Zer esan dau prailleak? —Atso batek galdetu eban. Eta beste atso batek, auxe erantzun eutsan:

Ez dakit zer esan dauen, baiña esan dauena, ederto esan daul

IZARO

## URARENA

*Ur zirrízrahoak  
darakus iturria.  
Olantxe itz onak  
gizonen argia.*

*Urak ekarri,  
urak eroan.  
Berak al daki  
noruntza doan?*

*Ur emoiakaz  
bizia zírri-zirri,  
ibai ertzakaz  
autu-mautuetan.*

*Uretik uretara,  
txikirik aundiara,  
iruririk larsera,  
larserik ibaira.*

*Irxasorakotan  
ur izpi bat emen,  
beste bat an bertan*

*egoak arrozen  
bat egitekotan.*

*«Maite au[ maite,  
etor ba neugaz,  
or bidebera,  
biok alkarraz  
azkenerarte.»*

*Aurrera ra aurrera  
asi geituzko ura  
badoa ibaibera,  
iritziz ondarrera  
itxaso gatzértura.*

*T,riri-rxirí, hata...  
elburu-amets artez,  
urez uretara  
ta, danak bat egiñez  
itxaso aundira.*

MUNIATEGI-tar Sabin

## Ezaren Billa

Mari Urruka  
Anboto'ko andrea:  
nundik nora dabilta  
nundik nora  
zure beste lagun  
sorgiñak  
galdurik bidea?

Ibarrik ibar,  
etxerik-etxe  
ezaren billa  
ari dira  
Euskalerriko bidez.  
Ezaren billa  
ezari zor zaionez  
zakelak betetzeko  
ezaren ainbateko  
urre ta zillarrez.

MUNIATEGI-tar Sabin

# GABONAK

## UME ERUGABEAK

### Goiria

Asarrea agertzen dau munduak erri txikiak  
eta erlijioak zapaldu gura dirala-ta.

Ta egian dago.

Ta zer esan mundu-zear itxita ta ezetsita  
ikusten diran umeai buruz?

Asko dira agoa esnez beterik dabela ilten  
diran umeak. Zenbatu-eziñak! Gauza itxusiak  
ikusten dira batez be uri aundietan.

Bigurriak eta dirurik ezak etxe-barruan  
ikusten diran jazoera negargarri ta lotsagarrien  
iturri.

Agintaria eldu daneko dana eginda dago.  
Umeak bere begiakaz ikusi dau aita amari aiz  
sartzen. Bere begiekaz ikusi lurrean etzanda  
bere amaren gorpua.

Beste batzutan aldizkari edo nobela baten  
inoiz amets egin bageko gauzak jakin dauz. Bar-  
din zinean.

Bai, pekatu aundia egiten da gaur eguenean  
umeakaz.

Eta bitartean danak isilik.

## RELENERA

Goazen pozez bizkar,  
danok Belenera,  
iaio iakun Aurtxo  
auspez gurtutzero;  
askatxo baten dago  
Ume Jaungoikoa,  
lasto-gaiñean otzez,  
dardarka gaxoa.

Bere ondoan dagoz  
idia eta astoa,  
arnasez berotutzen  
Jaungoiko Seintxoak.  
Aurra oiñak goraka  
eta jolasetan,  
irripartxo goxo  
muxu-espanetan.

Lasto-tartean otzez  
dago Aur gaxoa,  
gauza oron Jabe dan  
Jaun ta Jaungoikoa;  
Maria bere Ama  
ezti ba pozetan,  
lantzanka ta patxoka  
muxu-matralletan.

Artzaiak datoz pozez  
estalpe zarrera,  
opariak eskiñi  
ta Bera gurtzero;  
Ortze-goian da azaldu  
aingeru-taldea  
abesten leiaz «Gora  
guztion Jabea».

### Goiria

Colombia - 1931

## GABON ZO

Gabon-jaiak urreratzean, gure irak  
riona.

Zoriona arrantzale ta itxaskariai,  
Zoriona gaisoai ta ezinduai, zoric  
Zoriona gabon-gaba etxean eta ba  
etxetik urrin dabilzanai.

Zoriona errigille ta politikariai, zc  
Zoriona erriaren alde burrukalari  
Ilean egiten dabenai.

Zoriona gurasoai, zoriona seme -a  
Zoriona opor-aldian diran ikasleai  
leai.

Zoriona Eleizako arduradunai, zor  
ben guztiai.

Aintza zeruetan Jaungoikoari eta

## GU

GURE  
LASTOE]

1

Amak lo eiteko  
abesten dauलो.  
Lo lo nere mai  
Lo 10 Poixolo.  
Baiña otz clara  
ezin egin lo,  
ta bere amas xo  
nagarrez dauke

GURE P(  
LASTOEN

2

Lo egiten dauai  
aurixo zintzoak  
inguruan ditu  
aingerutxoak.  
Areik ekarriko  
koko gozoak,  
ta ega eiteko  
urrezko egoak.

## RIONTSUAK

e guztiai eta euskaldun guztiai opa dautsegu zo-

riona baserritar eta lantegietako langilleai.

espetxeratu ta erbestetuai.

z igaroko dabena, zoriona zergaitik edo agaitik

)na erritar zintzo ta baketsuai.

anai, zoriona isiltasunean erri-lana jakintza-sai-

)a ta aitita-amamai.

a ikastegiaren arduraz beterik bizi diran irakas-

ra Barri ona gaurko arazoan argi lez jarri nai da-

Ikea lurrean gogo oneko gizonai.

ZER

## E POTXOLO

TXOLO, GURE JESUSTXO,  
GAIÑEAN SEASKAN DAGO

4

Astotxoa dago  
Txistua jotzen,  
Idia danbolin  
Errepikatzen.

Artzaiñak poz-pezik  
arin dantzatzzen,  
Belen'go eslalpean  
danak zoratzzen.

XOLO, GURE JESUSTXO,  
AIÑEAN, SEASKAN DAGO

5

Zerutik lurrera  
egaz alaiki,  
millaka aingeruak  
datoz kaniari:  
aintza zeruetan  
Jaungoikoari;  
bakea lurrean  
gizon onari.

ELDU BEI  
BERRIRO GABON

Gau zori baten Beien aldean  
jaio zīñean Maitasun  
Zu zīñeala itxaropena  
m undu guztiren osasun

Zure indarrak eder aundiak  
ekarri dautsaz mundurí  
Belot askako argi beroa  
gizadiaren goi izpi.  
Zure igali maite maltea  
dala dubarik zuzentasuna  
zuzentasuna iturri dala  
berak dakar maitasuna  
bion artean jarío dala  
egizko askatasuna.

Baina ond[n0 os/opo asko  
gizon txarraren aldetik  
gaurko munduan ez da agiri  
olako zoragarrik.

Andra Mariren maitasungaitik  
indartu Zure maitasun  
gaur berean bere bidal gugana  
guztízkko bake ta zorun.

Zure askatxo kilin kolunka  
Amaren eskun bitartez  
Kulun bakoitza biur su hero  
mundu betelegeko pozez.

KA ULDIK

GURE POTXOLO, GURE JESUSTXO,  
LASTOEN GAIÑEAN, SEASKAN DAGO

3

Aingeru zuriak  
seaska inguru,  
dantzán ari dira,  
soiñu ta kanlu.  
Gure Polxotorí  
emonaz mosu,  
Maria ta Jose  
dabez alaim.

6

Ameselan dago  
gure Potxolo,  
gu maite gaituta  
bell geiago.  
Nik be maite zaitut,  
neure Jesustxo,  
zurekin nai neuke  
bizi betiko.

Txalopin txalo, txalopin txalo,  
Gure Jesus Aurtxoa to ta to dago.

GOIKOETXEA'tar Iñaki

# BERMEOKO ARRAUNLARI TALDEA

ALKARRIZKETA, JOSE LUIS  
BILBAO jaunagaz, zuzendaritza batzordekoa.

Zenbat gaztek osotuten dabe arraunlari taldea?

55 gaztek gitxi— gorabera, baiña euren artean badakizu taldeak dagoena; *au* da, infantil edo gazteenak 14 urtetik berakoak, kadete deritxenak 14'tik 16 urterakoak, juvenil deritxon taldea 16'tik 18 urterakoak, eta 18'tik gorakoak senior taldea. Neskan taldeak bere badaukaguz.

— Zeintzuk izan dira irabazitako sariak?

— 1980. urtean juvenil taldeak, Euzkadi-ko txapelketa irabazi eban.

1981. urtean kadetak, Euzkadiko txapelketa irabazi dabe. Bizkaiko «ligilla» deritxona bere bai. Bizkaiko txapelketan, bigarren gelditu ziran, eta España-koan be, bigarren.

Senior taldekoak, Euzkadiko txapelketa irabazi dabe, Bizkaiko «ligilla» be bai, Bizkaiko txapelketa baita. España-ko txapelketan bigarren gelditu dira, ta Barakaldoko III. Bandera, irabazi dabe.

\* \* \*

Ikusten danetik sari asko lortu dozue, ez?

Bai, orain asten gara sei urteko bearraren ondoren ikusten.

1975. urtean asi giñan eta asieran iñork ez ginduezan ulertzen ez berotzen, baiña orain pozik daukaguz *erritarrak*, uste dogu beintzat.

\* \* \*



Ze asmo daukazue aurrera egiteko? Senior taldekoak, Trainerillan parte artzen dabilz.

Aurtengo udan, Traineru bat ataratzeko asmoa daukagu. Santa Eulemia eguneko estropadetan parte artuko dogu baita. BANCOMOVIL deritxonagaz bere, jarraitzen dogu. Era onetan, Euzkadiko txapelketan irugarren saria ekarri gendun. Datorren garagarillaren 25'ean Menquinezara goaz, España-ko Txapelketan parte artzen.

\* \* \*

Zeintzuk dira daukazuezan arazorik larrienak?

Gure arazorik beifiena, material edo tresna onak lortzea da. Ori bearezkoa dogu aurrera egiteko. Egurrezko bate) geiago bearko gendukez, eta betikoa, orretarako diru asko bear da. Lokalaren arazoa bere euki dogu, bai-

ña udalak itzitako lokal bat geuk konpondu dogu, eta besterik ez daukagun artean or jarra;tuko dogu.

Zein zan asieran beintzat talde onen elburua?

Asieran eta orain bardin, gure elburua *au* da, aukera bat emotea Bermeoko gaztediari deporte mota bat egin aal dagien.

Eta *gero* deporte talde bezela, aal dogunik eta trebeñak izatea.

Ezer geiago esango zenduke?

Bai, esan bear dot, laguntzalle on bat daukagula taldean, *au* da, entrenadorea TXEMA CABRERA, eta ZER onen bitartez, ezkerrek emon gure dautsodaz talde guztiaren izenean. Eskerrik asko, Jose Luis.

AMAIA

# BERMEOKO ARRAINTZA

ALKARRIZKETA, JOSEBA ANDONI RENTERIA Jaunagaz, arrantzalea.

Zenbat itxas-ontzi dagoz Bermeo?

Bermeoko kaian, berreun ta amarren bal. 140 lebaizale la 70 bajurakoak. Gero, Ondarruko kaian baiña bermeolarrak, 33 itxas-ontzi arrastrero. Badaukaguz 43 atunzale konjeladoreak bere.

\* \* \*

— Ze arrant mota artzen dabe Bermeoko ontziak?

— Lebatzaleak, besegua ta lebatza naguan; ta aluna udan. Bajurakoak, bokarta udabarrían ta atuna udan eta udazkenean.

\* \* \*

— Zenbat denpora egiten dozue itxasoan?

— Bajurakoak, urtean zortzi hat illabete egiten dabez itxasoan. Lebatzaleak, urte guztian dabilz itxasora, baiña joanez iñak izaten dabez eguraldia dala ta.

\* \* \*

— Ze sasoiko jendea dabil itxasora?

— Enneko larogei, 40 urtetik herakoak gara. Jende gaztea batez he.

\* \* \*

— Itxasoko kutsadura, asko igarten dozue?

— Ez da igarten. Ori upiña da.

\* \* \*

— Zein da zuen arazorik aundiena?

— Aundiena, arraiña aurkitzea dala esango neuke nik. Gero badira, eguraldia ta beste batzuk. Baiña batez bere arraina aurkitzea. Itxasoaren azterketa baten bearrizana bere badaukagu.

\* \* \*

Ze eratako bizia da zuena?

Txarra, legorrean bizi diranak ezin dabe ulertu. Ez da, biarra gogorra dalako bakarrik. Gauza asko dagoz or, etxetik kanpo egon bear une luzeetan, amabost gizon alkarregaz egon eta bizi bear luzaroan eta leku ain lxikian. Ez da bat bere erreza ulertzea.

Eskerrik asko ba, Joseba Andoni.

AMAIA

# JUAN HUARTE

## HUARTETARRAK

Huartetarrak Benafarroako Donibene Garazi'n dauke sorterrria; Orreagatik iparraldera, eta andik ez urrun. Antzin-antziñako askazia, eta oso ospetsua; Nafarroakoa liburuetan sarri agertzen dana.

Donibane Garaziko errian jarri eben Gaztelarrak euren eginpidearen muga, 1512'garrenean Nafarroa menderatu ebenean.

Eta gora-bera andiak jasan ondoren, bere eskuko itzi eban Gaztelako erregeak, 1530'garrenean; egoe-ra txarrean itzi be.

Goinafarroakoak atzerritarrentzat jo ebezen; eta bardin Benafarroak. Ez ango ta ez emengo, ezin eben iñongo aginpiderik artu, ez an eta ez emen.

Ori zala-ta, ango etxe onetariko bizilagun askok andik alde egin, eta Gaztelako lurraldetan kokatu zan. Eta olan egin eben gure Juanen gurasoak be.

## OSAGILLE

Baeza'ko urian jaio zan gure gizona. 20.000 bizi-lagun eukezan uri onek, eta naiko erri polit eta ezia zan, garai artarako. Etxe ederrak eukezan eta baita bere Unibersitate be.

Juan de Avila santu ospetsuak eraiki eban, eta bera zan ikastetxe orren zuzendari. An egin ebazan gure gazteak bere lenengo ikasketak; eta bertan egin zan filosofiko gaien lizentziadun.

Andik Alcala'ko Unibersitatera abiatu, eta osakintzako ikaskizunari lotu jakon. Alcala ori zan España guztiko osakintz gaietako ikastetxerik on eta ospetsuena.

Ogeitamar urtetan osagille-agiria eskuetan, Granada'ko uri ederrean jarri zan osagille. Eta izugarriko lan ederra egin eban ango gaisoen artean.

Andik zazpi urtetara, iñork mendera ezin eban izurri ikaragarria sortu zan Baezan. Huarte'k, orduan, erregearengana jo, ta berak garbituko ebal gatz ori agindu eutson. Agindu ta egin; andik illabete batzuetara, danak osatu ziran.

Ori ikusita, erriak bertan gelditzeko eskatu eutson Huarte'ri. Ezin, baiña; bere osagillea eukan Baeza'k. Erriak ez amor egin nai, eta urteko 200 anega

gari eskeiñi eutsoezan. Eta bertan geratu zan gure osagille ospetsua.

## «EXAMEN DE INGENIOS»

Andik bederatzi urtetara, 1575'garrenean, «Examen de Ingenios» deritxaion liburu argitaratu eban.

Argitaratu baiña len, elizgizon jakintsu biri emon eutson bere liburu, aztertu ta ontzat artu egien. Eta ontzat artu eben. Ona,orreetako maisu, Heredia jaunak esandako itzak:

«Dotriña oneko liburu da; oso buru argi, ta berezko jakituri sendoaz egiña, eta on andia egin daikena. Nik iñoiz ikusi dodan gai berezi ta politena darabil».

Zati bi ditu liburuak. Mendu, doain eta aierkundi berezitasunak aztertzen ditu, lenengoan; eta bigarrengoan, izakera ta aiurriak norberaren jokabideetan dauken eragiña.

Liburu au da, orain ain izen on eta andi daben, Sikolojiko saio bideen aurrelari ausarta.

## «INKISIZIOA»

Arrakasta andia izan eban liburuak. Eta argitaraldiak ugari izan ebazan, bai gaztelaraz, baita Europako beste izkuntzetan be.

Ez zan baiña danen gogoko izan. Gaia, barria; erabilkera, barria; eta esakera be barria: ...barrikeri lar ikusi liburuan, eta askok ezetsi egin eben.

Orrela, andik lau urtetara, Inkisizioak parte artu, ta gauza batzuk zuzendu egin bear zirala eskatu eutson egilleari. Ez da erre, izan be, ainbat esangura barri ta berezientzat esanbide egokiak aurkitzea.

Min emon eutson onek gure gizonari. Baiña, gizon zintzo, prestu ta kristau ona zan-eta, zuzendu ebazan zuzentzekoak. Ez eban liburuak, mozketa ta zuzenketa orrek zirala-ta, gauza andirik galdu; eta argitaraldi barri ta ugariak egin ziran, barriro be.

Andik amazortzi urtetara baiña, barriro ezetsi eben liburu ederra; eta ala euki be oraintsu arte, Bati-kano II Batzarra arteraiño.

Zer esango eta eban, bitartean, zerutik gure osagille on eta prestuak?

URKIOLA'k

---

## BERTSOETAN

---

# BEARTSUA...

*Beartsua maite dot  
barru almen guztiaz  
errukiz urturik.*

*Zu zara Jainkoaren  
irudia lurrean  
egi brurturik.*

*Egilleak ez dau nai  
lurrean buru - biotzez  
iñor ondalzerrik;*

*ez dau ikusi gura  
urrezko lupetzelan  
betiko galdurik.*

*Diruaren garretik  
urten daben gizona  
zorionekoa!!!*

*nauskeriaren olsa  
kendu daben brólza,  
zuzenbidezkoa!!!*

*Norbere ondasunak  
banatu dituana  
landerren arloan,*

*beartsu biurtu da,  
biotza garbrluaz,  
egizko bidean.*

*Gizonak zapaltzeko,  
maite eban dirua,  
bola daun burua,  
egizko anaia da,  
[urrez jabetu da-ta,  
biotz urrezkua.*

*Diruaren egarritz  
bizi ez dan gizona  
lanaren bidelan;  
obena apurtu dau,  
biotza zabalduaz  
argi zuzenetan.*

*Odol errukitsua,  
agurgarria zara  
landerren etzean;  
egia daroazu,  
gizadiari otska  
errai barrenean.*

---

# UDABARRI...

*Ator udabarria...  
Ator lenbait-len griñaz,  
bizia indartzera.  
Neguaren gogorra  
lurpean jak oraindik  
aginka oiñera.*

*Ixilik jagok Norbait  
izadia edertzen  
maitasun garretan.  
Urrez jo egik lurra  
gozotasun zauriaz  
aitz ta zelaietan.*

*Argiaren beroa,  
sartu adi lurrera  
otzak uxatzera;  
gizonak kendu nai jok,  
donsu, buru txapela  
ire etorrerara.*

*Ederraren zentzuna  
asmau joat, ler naiez,  
goi ta be orotan.  
Zer dakarstek loretan,  
udabarri ezta,  
on uts eriotan.*

*Gazteak dituk kutun,  
i legez barrekari  
argi barrerietan;  
i az bizitz illinti  
gaztearen musuan  
poz aundienetan.*

*Goi urdiñean abil  
gardentasun berea,  
maite dodan garra.  
Utsik al ago goia...!  
Ainbeste edertasun  
jatak ezilkorra.*

# OIZ

*Ene Oiz mendi maite,  
Bizkai biotza zara  
egal mamiñetan;  
zure lur dana dakust,  
leiarak ausi bage,  
begi ninietan.*

*Eder miña sortu jat.  
Arran otsa entzun dot.  
Il ingo ete naz...  
Baiña, zu, mendi guren,  
arerio al zaitut  
goi edertasunaz...?*

*Zenbat eta gorago  
arnasa ta odola  
jataz ariñago;  
biotza ioranago,  
ail ez dot nai lertzetik,  
Oiz jat bikaiñago.*

*Ona maite nai zaitut,  
gogoz, gorputzez, itzez...  
kantari asi naz;  
ez nekien zer zanik  
maite dodan Aberria  
zoriontasunaz...*

*Saltoka asi dira  
bildots zuriak legez  
mendi gain guztiak;  
pozaren amodioz,  
arriak irriparez,  
izketan maitiak.*

*Amaika milla lorek  
ez dabe baratzarik  
lurrin gozoetan;  
Bizkai mendi guztiak  
biotz biurtu dira  
maitasun garretan.*

*Zer dariozu lurra...?  
Aberriaren garra...?  
Bizkaiaren sua...?  
Oizmendin egaz dabil,  
biziak ezilkortzen,  
maitasun gogua.*

## JAKINGARRIAK

# AIZEAREN ETA LOAPAREN AURKA

### AIZEAREN ETA LOAPAREN AURKA

Berreun millatik goragooko giza-taldeak Aiegi'ko landetan eutsi ebazan aizea ta euri-zaparradea A Ilderdi-egunaren jaia ospatu genduanean.

Estella edo Lizarra'tik, Napá'roa'ko Euskal-Uri nabarmen onetatik urrean ziran Aiegi'ko zelaia.

Iru euskal-izen abertzalegaz zer-ikuski estua dauko Lizarrak. Lenengoa Irujo ta OIlo'tar Manuel dogu an jaioa eta Eusko-Alderdi Jeltzalearen izenik gurenak emotekotan bera litzake argienetarikoa.

Bigarrena A Jurriagerra'tar Juan, Lizarra'n min-biziaz it jakuna.

Ingarrena, omenaldia egin jakon A girre'tar Fortunato. Au I9.I6 garren urteko irailaren 29'an. Mikel deunaren jai-egunean, tirokatu eben.

### ALDERDIEN JAIA

Aiegi'ko batzarrean gauza bat argi ikusi da: Abertzaleen jai bat izanda, ludi guztiko abertzaleak, España'koak naiz beste toki batzutaokoa batu zirala.

Euren arteko oar-ikuskiak agertu eta autonomiari egin leikion ebagiagaitik urduritu ziran.

An Alderdi Galzía'tarrekoak bialdutako ordezkaria, Avelino Pousa buru eta bere idazkari orokorra ikusi genduan. Pais Valencia'k Franzisko Dario bialdu eban ordezkari lez eta Convergencia ta Unio, eskuerra republicana de Catalunya be an egoan.

\* \*\* \*\*

### ZUBIEN ETORPIDEA

Eusko Jaurilaritzaren Lurralde-Sailleak bideetako erakunderik txarrenetarikoa artu dau etorpile lez, lengo España'tarren gobernatze okerraren ondoren lez.

Gaiñera Nebion ibaiaren ezkefaldian zubi sakabanatuak, ondo eginda ba'legoz, Bilbokoakaz batuta Bizkai'ko lurraldea Venecia euskalduna biurtuko leukee.

Eta lenengo oroigailu eder lez, «Rontegi Zubia». Eskumal-detik jarraibidea ba'leuko Kantauriko bide zabalaren zati garrantzitsua izango litzake. Orain ezertarako be ez dau balio,

Barakaldo'ko mutikoak jokatzeko baiño: Betik igaroten diran itxas-ontzínœi arriak jaurtiz.

Eurak ez dabe ulertzen zubi onen kondairaxua, ezta zelan urtero 800 milloi beragaz galtzen diran be.

### SANTURTZI'N ETA ZIERBANA'N

Erriko Lanen Ministeritzak Bizkai-aldean zubiak alan olan egin ebazan.

Zierbana ta Santurtzi gabetik goizera zubi bikañakaz jantzita aurkitu ziran.

Baiña ezertarako balio ez dabenak oneik be eta itxasora bidean topo geinkezan toki eder batzuk jenteari kentzen eutsoezanak.

Lenago eraiki ziran Kai-Garaiaren bide ta zati egokitsu lez. Gaur egun gizataldeak eguzkia artzen dau batzutan, arrantzuan egin besteetan eta guztien eritxiz alderdi polit orreik alperrik galtzen dira.

Bardin jazo da Zierbana'ko kaiatz. Arrain-kai eder au erdititu dabe eta inguruak garbitasuna ta edertasuna galdu ditu.

\* \*\* \*\*

### FOLKLORE ERRUSIARRA

Geroago ta ugariagoak dira sortaldetik Euskalerrira datorkuzan folklore-Taldeak.

Zenbat eta talde gaigo etorri, jentea geiago doa eurak ikustera. Ikustaldi bakoitzean aretoak notiñez beterik, gaiñezka dakusguz.

Arantz eta onatz Euzkadi'tik zear, dabilkigu Boris Alexandro'ek artezten dauan gudaroste errusiarraren abesbatz, ballet-dantza ta orkestea edo ereskontza, jente-talde ugariatz batera.

Guztiak bizibidezkoak, profesionalak dira eta gure artera etorteko abestirik ederrenetarikoa gertatu dabez: «Boga-boga» ta «Agur jaunak».

Euren azalpenen eta adierazkizunen indarra gorengoa da eta antzokiko jenteak pozarren jagi ta txalotuten dauz.

A bes-batz eta eres-batz ikusgarriak eta entzungarriak benetan!

ARREGI'tar Josu'k

## ZER'EKO IDAZLEEN BATZARRA

Lenengo orrialdean esan dogun lez, abenduaren 26an.

ZER'eko idazleen batzarra izango da Zornotza'ko.

Larra'n, goizeko 1 1'etan.

Egitaraua: —ZER'en Barriak (Zuzendariak).

Idazleen eritxiak.

Geroari begira.

Itaun-erantzunak.

Batzar ostean bazkaria egingo dogu bertan nai dogunak. Tamalez, bakoitxak ordainduta izango

Bazkaltzen geratzeko ustea dozuenok Idatzi barri ori emonez zuzenbide onetara: Olazar'tar Martin. Eupeme deuna 2.—Bermeo.

**Eskerrik asko!**

# 25 urte txadon

---

Gurean eliza bat sortzea erriaren edestiari oñarri bat ipintea dala esango geunke.

Euskal errian elizak erriaren muin ta oñarri biurtu dira.

Elizaren inguruan asi ta bizi izan dira gure erriak.

Erriaren eta elizaren edestia elkarturik dagoz gurean.

Bertako elizaren edestia ezeztu ezker, erriaren edestia ukatzen da.

Gure errietan elizaren inguruan batzar ta legeak egiten ziran geienbaten. Elizako kanpaiak, ez bakarrik elizako batzarretara bai ta erriko batzarretara deitzen eben.

Errigintzarako batzarrak elizpean edo eliz aurrean egiten ziran, ori ta gure erriak elizaurre edo anteiglesiai deituak ziran.

Eliza bakoitza, aundi nai txikia izan, erriarentzat ez bakarrik gogo bizitzaren indargarri, bai ta kultura ta gizarte bizitzaren oñarri ta iturri.

\* \* \*

Gomutagarria ta zoragarria auzune baten eliz barri bat egiten dan eguna.

Gizon talde bat bizi dan tokian eliz barri bat egitea gauza ederra benetan.

Bear dan gauza, egun ori ta eliza orren edestia gogoratzea.

Oraintxe (1981) eliz barri baten sortzea ospatu dogu aundikiro Bilboko Peña deritxon auzunean.

San Anton parrokitik bi kilometro ingurura 2000 biztanle bizi ziran eta parrokitik urrun egolako 1931 an, biotz on batzuk lagundurik jaio zan Artzain Onaren eta Teresetxu donearen eliz polit lerdena.

25 urtean San Antoneko eliza lagun (aneja) izan zan ta gero 25 urtean parroki aske ta oso osoa.



Oraintxe ba ospatu doguz eliz barri orren urrezko ezteguak eta parroki danetik zidarrezko ezteguak.

Ori dala ta mai inguru, kirol, itzaldi ta abar ugari ugariak izan dira eta, ospaki zunok amaitzeko urtillaren 25'ean elizkizun miragarri bat. Dorreko kanpaitxoak egun guztian ixildu baga ebizan eliztar ta enparau

guztai egun aundia iragarten Meza nagusi ospetsua, Gure Gotzain Larrea'tar Koldobika Mirena buzu zala.

Bere inguruan abade ta lekaide aldra ederra. An egozan eliz orretan gogoartzaintzan lan egin daberen eta bizi diran abadeak, batez bere Eliza ori egin zanetik 44 urtean zear lan ikaragarria egin daberen On Joan Aguirrezeziaga, Durangotar abade benetakoa.

Orain zar zaritua da, baña ezin aztu berak Peñako auzune orain aundi egin dana ta gaur Mesedetako Andra Mariren Lekaideak landuten dabena, On Jaunek urratutako soloa indartu ta edertuaz.

\* \* \*

Peña'ko erriak ederto, erantzun dauso eliz gizonen deiari, eliza dana ganezka egoan eta erri guztia arro arro, ikusirik zelako gazteak, umeak eta sendi bedeinkatuak urten daberen eliza orren gerizpetik.


Len esan dogu eliz baten inguruan beti indartuten dirala gogo bizitza, kristautasuna eta iakintza edo kultura, ta orixe iazo da Peña'ko eliz inguruan be. Zorion beroenak Peñatarrai ta jarrai dagiela pozik eta indartsu euren elizari laguntzen ta euren euren dan gauza lez zaintzen eta idartzen, Gotzain Jaunak eztegu orretan eskatu ta agindu eutsen lez.

Ordua da eliztar guztiak, elizea euren dala to ez bakarrik elizgizona, konturaturik eleizaren alde guztiok alkaturik ekitea.

Alde guztietatik eleizaren aurkako odei baltzak agertzen dira ta, ekin danok elizagintzan ernai ta bizkorlll




# ASTIRO



EZKER ESKURIA: 1. Junio. Enseñanza.-4. Cerveza. Aca, aquí.-6. Oriundo de. Otoño.-8. Llamada. El diario. -10. Recto, directo.-11. Rectitud. Suf. indica acción.-12. Zuek. Reventon, resbalon.-13. Ligereza, imprudencia.-14. El predilecto, entrañable.-15. El, aquel. Al día siguiente.

GOITIK BERA: 1. La soledad. Tener.-3. Fatuo. Cercar, rodear.-4. Agua.-5. Comarca, país. La mayor parte.-7. Tu. Reloj.-8. Papilla.-9. Aparecer. Himno.-10. Tacto, fruto del madroño.-11. Costado, proximidad. Allí.-12. Propenso a crecer.-13. Haya. Grupo, conjunto.-14. Muy bien.-15. Hermano. Agricultor.

## 17.<sup>a</sup> ERANTZUNA



# EUSKERAZALEAK EGUTEGIA

Igaz EUSKARAZALEAK ALKARTEAK, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren babespean egutegia atera eban eta aurten be aterako dau.

Egutegi au oso interesgarria da: Egun bakoitzean iru urte urren gogoratzen dautsez euskaldunai aurreko aldean, eguzkiaren, illargiaren eta itxasoaren gorabera-kaz batera eta atzeko aldean jakintzazko barri irakurgarriak eta barregaiak eta olakoak. Igande ta jai-aurreetan **BARRI ONA**.

Aurrezki-Kutxaren Ian-etxeetan banatuko da eta eskatu nai dozen guztiok. Doan izaten da.

EUSKARAZALEAK

# EUSKERAZALEAK

## GURE EGUTEGIA

«Nire seme alabak Egutegiaren orritxuagaz ikasi dabe irakurten eta idazten» esaten eustan aita euskaldun batek. Eta sarritan bide on bat izaten da eguneroko lantxu au, apurka euskerearen zaletasunera sartzeko: gaiak ariñak eta errezak; labur, olako orri txiki baten sartzen dana baiño agertzen ez dala...

\* \* \*

Baiña gure egutegiak beste alderdi on bat be ba-dauka: Kondairako jakingarriak. Etxean baten batek Euskalerrriaren kondaira, ondo ba'daki, egunero iru jakingarri orreik bide izango dira orduko ingurua azaltzeko.

Ikastegi batzutan be olako zerbait egiten da.

Eta jakingarri oneik, sarritan, atzeko aldean sakonago aztertuta agertzen dira.

Orritxuen atzeko aldean, gaiñera beste gai asko agertzen dira: Mundu guztikoak naiz euskalerrrikoak, aldizkarietarik eta liburuetatik artuak.

Danari egiten jako ikutua: kondairari, elertiari, lutelestiari... Eta ez da ezertan be larregi sakontzen. Orretarako liburuak eta irakastaldietan egiten diran lanak izaten dira.

\* \* \*

Eta euskerea? Gure bizkaiera erreza ta errikoia, garbia ta ulerterreza. Au be irakurteko egarria sartzeko bidea izan leiteke.

Euskaldun barriak be gogotsu irakurten dabe gure egutegia, orrexegaitik: Euskera erreza ta gaiñera gai errezak eta ezagunak diralako.

\* \* \*

Bizkai'ko Aurrezki-Kutzari eskerrak, gure egutegia duan banatzen da, Kutxa orren lan-etxeetan banatu be. Guk geure inguruko laguntzailleentzat ale batzuk baiño ez daukaguz.

Eskatu ba Bizkai'ko Aurrezki-Kutzaren lan-etxeetan Eguneroko orridun egutegia. Ez jatzu damutuko. Eta EUSKERAZALEAK pozik izango da Euskalerrriari bere aurrerabidean zerbait lagundu al izan ba'dautso.

OLAZAR'tar Martin'ek

### GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZ OAK

### SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko gorabera, jazokizunak, barregaiak...

# ARGI-IZPI BARRIAK (III)

Euzkadi'ko Lagi Zarra du 1. Irrestarazu'ren irugarren liburuxka onek mami.

Ondo bearrezkoa genduan arlo ontan ere argitasun pixka bat. Gaur ia-ia iñork ez bait daki gure Lagi Zar edo «Fueroak» zer ziran!

Fueroak ziñatzera (juratzera) etorri nai ebalu Gernika'ra, esan omen eutsan erregeak eusko-parlamentari bateri. Ori egia ba'da, erregeak Bizkai'ko «Fueroak» zer ziran ez daki. «El amejoramiento de Fuero» edo «Naparroa'ko Lagi Zarraren obekuntza» egin nai dabela diño Naparro'an ango politikari madrildzaleak. Ori esaten ari diran naparrak, Naparroa'ko Lagi Zarra zer zan ez dakie.

Agian, guk gerok, euskotarrok, dogu gure Legi Zarraren inguruan sortu dan naste-borraste orren errua, izen ori «baten-einean» edo «singularrean» erabilli bearrean, «askoren-einean» (pluralean) erabilli dogulako. Gipuzkoan eta Naparroan batez ere: «Lege Zarrak», «Lege Zarraren» ordez.

Ondo zuzenki erabilli eban, bai orixe, Arana Gori'tar Sabiñ'ek baten-einean izen ori! «Lagi Zarra» esan oi zuan arek. Izan be, gizon aundia izan bait zan Sabin; eta argia! Euskalerrriak izan dauzan gizon argien artean argienetakoa, argiena ez ba'da.

Ogeita'mairu «urrezko orri» dauzan idaztiño ontan Urrestarazu'k ez dausku Lagi Zarraren zertasu-nik aztertzen. Beste bide batetik dabil: Espaki'ko Jaurlaritzak, orain eunen bat urte, Lagi Zarra erabat kendu euskunean, Lagi Zar orren alde Españi'ko parlamentuan eusko-parlamentariak, batez ere Moraza'k, erabilli ebezan arrazoiketak agertzen dauskuz.

\* \* \*

Orregaitik, galdera bat gelditu da liburuxka eder ontan erantzunik gabe: Gure Lagi Zarra... ezer zan?

Ez beintzat «lege-sorta» bat: Euskalerrriko Batzarretan egindako «legeen sorta».

Euskalerrriko Batzar Orokor oietan (Gernika'n; eta Arriaga'n; eta Ustaritz'en; eta Iruña'n; eta Gipuzkoa'ko Uri Nagusietan txandaka) legeak egiten ziran; bai noski. Ain zuzen, ortarakoxe, legeak ema-

teko, biltzen ziran, jabetasun osoan, Batzar oietan erriak yareki (libreki) aukeratutako Ordezkarriak. Batzar Orokor oiek ziran Euskalerrriko Parlamentu bakarra, eta Batzar oiek bakar-bakarrik eban, Euskalerrrian lege-emateko eskubidea.

Erregeak ez eban orrelako eskubiderik. Ezta erregearen Jaurlaritzak ere. Batzarrak bakarrik! Batzarretan sortuak ziran emengo lege guztiak. Emen ez zan beste legerik.

Baiñan Lagi Zarra ez zan Batzarretan sortutako legeen Bilduma (Kolekzioa). Lege aukeratu Lege Zarren araura egiñak izan bear eban. Beraz, «aukeratu» baiñon leenagokoa zen «ura» bai garrantziz (importantziz) eta bai denboraz ere. Batzarretako legeak jaio baiñon leenago, Batzarrak berak biltzen asi baiñon leenago ere, Lagi Zarra ba-zan.

Zer ote da ba Lagi ori?

Gogo bat; Izpiritu bat. Gogo bat: millaka urteak zear gure Erria tajutu daun Gogoa. Izpiritu bat: amaren sabelak bezala, gure oiturak, gure gizarte-bideak eta gure legeak bere altzoan sortarazi ebazan Izpiritua.

Gure Lagi Zarra ez da «Fuero» bat. Oso gaizki gabiltza gure Lagi Zarrari «Fuero» deitzen dautsagunean. «Fuero» itzak bi gauz esan nai dauz: «Lege» eta «Pribilijio» edo «mesedezko araua». Baña Lagi zarra ez da Lege-Sorta bat. Askoz gutxiago Españi'ko edo Frantzi'ko erregeek emandako pribilijioen bilduma. Ez zan oraindik Españi'n, ez zan Frantzi'n erregerik, eta Lagi Zarra ba-zan. Geiago oraindik: Ez zan artean Españi'rik, ez zan Frantzi'rik ere, baiña gure Lagi Zarra ba-zan!

Lagi zarra Izpiritu edo Gogo bat ba'da, ezer da Gogo orren barne-muiña, zertasuna?

— Askatasuna. Euskalerrria erri yarea (librea), beste iñorenganako menpetasunik gabeko erria dala gogo osoz sinistea.

— Buru-Jabetza. Euskalerrria bere buruaren jabe, jabe bakarra dala, eta beste jaberrik ez duala ziur sinistea.

— Demokrazia edo Erkala. Euskalerrrian erriak eta erriak bakarrik agintzen duala, gure izate guztiarekin zalantzarik gabe aitortzea.

Ori da gure Lagi Zarra. Demokraziaren deadarra. Munduko demokraziarik zarrenaren eta garbieraren deadarrik zarrena eta zendoena.

# VIZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia